



COVID-19an POSITIBOA EMAN DUTENEN ETA BERROGEIALDIAN DAUDEN PERTSONEN HONDAKINAK KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK

Trantsizio Ekologikoko Ministerioak emandako jarraibideak haintzat hartuta, COVID-19aren proban positibo eman duten edota berrogeialdian dauden herritarrek **EZ DUTE HONDAKINEN BEREIZKETARIK EGINGO** eta **HONDAKIN GUZTIAK ERREFUSAREN EDUKIONTZIETARA BOTA BEHARKO DITUZTE ONDO ITXITAKO PLASTIKOZKO POLTSETAN**. Debekatuta dago, birziklatzeko beste edozein frakzioren (organiko, ontzi, paper, beita, arropa) edukiontzietan sartzea edo inguruan lurrean uztea.

Jarraibideak:

Lehen pausoa:

Gaixo dagoen pertsonak sortutako hondakin guztiak, eskularruak, zapiak, maskarak barne plastikozko lehen poltsan (**1. POLTSA**) sartuko dira, gaixoaren gelan jarritako zabor-ontzi batean (ahal bada, estalkia eta irekitzeko pedala duena).

Bigarren pausoa:

1. POLTSA behar bezala itxi eta gelako irteeratik gertu egongo den plastikozko bigarren poltsan (**2. POLTSA**) sartuko da. Bigarren poltsa honetan gainera, zaintzaileak erabilitako eskularruak eta maskara sartuko dira ere eta behar bezala itxiko da gelatik irten baino lehen.

Hirugarren pausoa:

2. POLTSA etxean sortutako gainerako hondakinekin batera (organikoa, ontziak, papera, beira, arropa...) plastikozko hirugarren poltsan (**3. POLTSA**) sartuko da, eta behar bezala itxiko da.

Laugarren pausoa:

Aurreko hiru pausoak egin eta berehala eskuak sakonki garbituko dira, ura eta xaboiarekin, 40-60 segunduz gutxienez.

Azken pausoa:

3. POLTSA errefusarentzako edukiontzian bakarrik sartuko da. Erabat debekatuta dago birziklatzeko beste edozein frakzioren (organiko, ontzi, paper, beita, arropa) edukiontzietan sartzea edo inguruan uztea.

Tolosan, 2020ko martxoaren 23an